

BIDEBI SLk kalitatea eskaini nahi du. Hirigintza-jarduketa zerbitzuak ematen ditu Sozietateak, eta eraikuntzak, etxebizitzak eta bestelako ostatuak, lokalak eta aparkalekuak sustatu, eskuratu, eraiki eta kudeatzen ditu, eraginkortasun eta efikazia irizpideen arabera eskuratutako lurzoruetan eta aintzat hartuta proiektu bakoitzari lotutako alderdien interesak eta beharrianak.

Horren arabera, BIDEBI SLren aburuz, basauriarrek honako eskubide hauek dituzte, etxebizitzaren eskaera- eta eskaintza-zerbitzuari dagokionez:

- Eguneratutako informazioa eskuratzea, horretarako ezarritako edozein bide erabilita: telefonoz, posta elektronikoz, webgunearen bidez edota bertara etorrira.
- Arreta egokia eta berdintasunezkoa jasotzea, eta datu pertsonalen isilepintasuna bermatuta izatea.
- BIDEBIren instalazioak irisgarriak izatea, eta egoera onean eta garbi egotea.
- Ezarritako prozedura betetzea.
- Abisuak, kekek, oharrak eta iradokizunak egin ahal izatea, eta horiek aintzat hartuak izatea.

Era berean, BIDEBI SLn jakin badakigu gure ingurumena eta ordenamendu juridikoa errespetatu behar ditugula, eta, horrenbestez, konpromisoa hartzen dugu kalitatea kudeatzeko sistemei buruzko ISO 9001 arauan eta *compliance* kudeaketa-sistemei buruzko UNE 19601 arauan oinarritutako kudeaketa-sistema ezartzeko. Horren harira, honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Kalitateari eta delituen prebentzioari buruzko indarreko araudi aplikagarria betetzea, bai eta enpresak bere egindako bestelako baldintzak ere.
- Enpresaren jarduera eta zerbitzuak aurrera eramaterakoan sor daitezkeen arriskuak identifikatu eta baloratzea; eta arrisku horiek kontrolatzeko eta horien jarraipena egiteko planak garatzea.
- Gure jarduerak interesdunengan izan ditzaketen ondorio negatiboak aurreikusi eta minimizatzea. Etengabeko hobekuntza, delituak prebenitzea eta bezeroen asebetetzea lortzea izango dira gure konpromisoak.
- Deliturik egitea debekatzea eta arrisku penalei buruzko egitate edo jokamolde susmagarrien berri ematea, betiere, informatzaileak errepresaliarik pairatuko ez duela bermatuta.
- Kudeaketa-sistema aldizka berrikustea; aurrera eramandako neurrien egokitasuna eta eraginkortasuna ebaluatzea; eta finkatutako helburuak lortu ote diren balioestea, hirugarrenen gaineko ondorio negatiboak minimizatzeko eta estrategia berriak ezartzeko.
- Langileei eta BIDEBIren izenean ari direnei prestakuntza eskaintzea, eta kontzientzia harraraztea, kudeaketa-sistemaren arauak eta baldintzak ezagut ditzaten, horien arabera jokamoldea izan dezaten eta horiek bete ditzaten.
- Enpresan deliturik egitea ekiditeko beharrezko neurriak ezartzea eta horien zabalkundea egitea, prestakuntza eta kontrolaren bitartez, betetze-eskuliburuan aurreikusitakoaren arabera.
- Eskaintako zerbitzu eta prozesuak egokiro eta modu eraginkorrean garatzeko giza baliabideak, baliabide teknologikoa eta ezagutzak esleitzea langileei.
- Interesa izan dezakeen orenen esku jartzea politika integratu hau.

Hori guztia egingo da kudeaketa-sisteman finkatutako baldintzekin bat etorrira, etengabeko hobekuntza lortzen saiatzeko (gero eta zorrotzagoak diren kudeaketa-helburuen eta planteamendu-erronken bitartez).